

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko abenduaren 27a. VIII. urtea. 2.331. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Larramendiko lurperatzearen aurkako jarrera berretsi du ezker abertzaleak

«Hasieratik aurka» daudela esan du Tolosako mahai politikoak, eta jarrera hori «txosten teknikoetan» oinarritzen duela **3**

## Anoetarren argazkiekin osatu dute 2012ko egutegia

Anoetako Udalak banatu du jada herritarren ekarpenarekin osatutako lana; argazki guztiak udalaren webgunean ikusi daitezke **2**

## Maider Mendizabal: «Erritmo gabe hasi ginen jokatzeko»

Anoetako pilotariak bosgarren aldiz jantzi du Emakumea Pilotari Torneoko txapela, baina finaleko partida ez zen ona izan bere ustez **6**



TERRADIOS

→ **Inoiz baino neska gehiago Shanti Txapelketan.** Atzo hasi zen Tolosako areto futboleko lehiaketa Usabal kiroldegian. Aurtengoan 61 taldek eman dute izena, eta 600 neska-mutil baino gehiago ariko dira lehian. Antolatzaileek neska taldeen igoera nabarmendu dute. Finala datorren urtarrilaren Ban izango da. **7**

ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA  
KONTSULTA MEDIKU-ESTETIKOA

# Maite

Leitza kalea z/g • Tolosa  
943 67 09 30 • 943 67 03 38

### Opari bat egin behar duzu?

Maite estetika zentro eta lurrindegian lagundu eta aholkatuko zaitugu.

Lurrinak, tratamendu paketeak, zeta eta artilezko zapigintza, bitxiak, osagarriak...





2012ko egutegia herritarrek munduan zehar ateratako argazkiekin osatu dute Anoetan. HITZA

# 2012ko egutegia osatu dute herritarrek ateratako argazki politenekin

Udalak eskerrak eman nahi izan dizkie 2011ko argazki lehiaketan epaimahai lana egin duten herritarrei

**Asier Imaz** Anoeta

Anoetako herritarren laguntzarekin, udalak, 2012ko egutegia osatu eta herritarren artean banatu du jada. Aurrez, argazki lehiaketa antolatu zuen, eta irabazleen argazkiek osatzen dute egutegi koloretsua. Bertan, anoetarrek aukeratu dituzten herriko nahiz atzerriko argazki ederrenak aurki daitezke.

Herritarrek parte hartze zuzena izan dute prozesu guztian, hau da, bai argazki lehiaketan eta bai irabazleak aukeratzeko ga-

## ↓ Sarituen zerrenda

### 2012KO EGUTEGIA

- **Bixente Blanco.** Errealitateak fikzioa gainditzen du.
- **Irati Irazusta Jauregi.** Beltz guztiak ez dira ikatz!
- **Iosune Arregi Goenaga.** *Guztionea da lurra, zeruaren opari elurra.*
- **Iosune Arregi Goenaga.** *Oraintxe hegan oraintxe pausa, airean dabil pinpilinpauza.*
- **Ina Caballero Ropero.** *Aurreko belaunaldiak zuhaitzak lan-*

raian ere. Horregatik, udalak eskerrak eman nahi izan dizkie bozketan parte hartu duten guztiei.

Gustura agertu dira lehiaketak eman duenarekin udal ordezkariak, eta [www.anoeta.net](http://www.anoeta.net) webgu-

*datu eta hurrengoak bere itzalean babestu.*

- **Asier Iraola Camison.** *Naturaren sena, bizitzaren bide zuzena.*
- **Bixente Blanco.** *Mundua isplu bat da, non bertan, behatzailearen irudia islatzen den.*
- **Iosune Arregi Goenaga.** *Eguzkia, egiguzu argi, ikus dezagun Anayet garbi.*
- **Aitzol Esnaola Zubeldia.** *Korsika txirriskutik.*

nean zintzilikatu dituzte argazki guztiak, *Argazki lehiaketako sarrituak* atalean. Bertan, argazki bakoitzaren zehaztapenak aurki daitezke, sarituen izen abizenen ondoan.

## Zabalik jarraitzen dute kiroldegiko ikastaro eskaintzek

Kirol jardueretan izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko Abraham Olano eraikinera jo behar da

**A. Imaz** Anoeta

Anoetako kiroldegitik antolatutako kirol jardueretan izena emateko epeak zabalik jarraitzen du oraindik. Hamaika ikastaro

antolatutako bazkide nahiz bazkide ez direnentzat; pilates, aerobik, helduentzako gimnasia, cycling, yoga, kenpo kai, patinaia, gimnasia erritmikoa eta judoak osatzen dute 2012. urteko kirol eskaintza.

Informazio gehiago nahi duenak 943 65 13 33 telefono zenbakira dei dezake, edo Abraham Olano kiroldegi bertara joatea nahikoa izango du. Horrez gain, [www.bpxport.es](http://www.bpxport.es) webgunea ere interesatuen eskura jarri dute.

## → Laburrak

### Txalburu eskolako zozketaren irabazleak

**ABALTZISKETA** Txalburu eskolakoek Gabonetan saskia eta afaria zozketatu ohi dituzte. Aurtengoan ere horrela egin dute, eta behin zenbakiak saldu ondoren, horietako bi aukeratzeko unea izaten da. Abaltzisketako eskolatik azaldu dutenez, hauek dira bi zenbaki sarrituak: 2.172aren jabeak saskia irabazi du, eta 1.238 zenbakiarenak, afaria.

### Asvinenean zirko tailerra eta antzerki lehiaketa

**ADUNA** Asvineneak haurrentzako zirko tailerra antolatu du gaur, bihar eta etzi. Hiru egunetako tailerrean parte hartzeko 50 euro ordaindu behar dira. Ikastaroa 11:30etik 13:00etara izango da, Adunako Asvinenearen egoitzan. Informazio gehiagorako 689 79 24 69 edo 605 41 08 80 zenbakira deitu behar da. Bestalde, VI Poltsiko Antzerki Lehiaketan izena emateko epea zabalik dagoela gogorazi dute, horretarako, [poltsiko2012@gmail.com](mailto:poltsiko2012@gmail.com) helbidera idatzi behar da, martxoaren 15a baino lehen.

### Suhiltzaileek tximiniako sutea itzali behar izan dute

**LEITZA** Nafarroako Gobernuak suhiltzaileen arabera, tximinietan sortutako lau sute itzali behar izan zituzten ostiralean, eta horietako bat Leitzan suertatu zen. Beste hiru suteak Tafalla, Tuteran eta Gorritin izan ziren.

### Donostiako Txotxongilo konpainia Topic-en, gaur

**TOLOSA** Donostiako Txotxongilo konpainiak Gabonetako ikuskizun bat aurkeztuko du gaur Topic zentroan, 18:30ean. Poesiaz eta musikaz bateriko lan ederra dela azaldu dute konpainiatik, elurrezko panpina batean inguruan sortua. Sarre-rak [www.topicitola.com](http://www.topicitola.com) helbidean aurkitzen dira salgai, edo Topic bertan.

### Txaraman Mus Txapelketa jokatu dute ostiralean

**TXARAMA-LEABURU** Euskal Herriko Mus Txapelketaren kanporaketa jokatu da ostiralean, hilaren 30ean, Txaramako elkartearen parte hartu nahi duten Leaburu eta Txaramako herritarrek zita dute, beraz, 21:30ean. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko du, eta irabazleek sari ederrak izango dituzte.



Egin HITZAren harpidedun

abenduaren 31 baino lehen, eta jaso

**MAHALA** ekoizlearen produktu sorta hau

**OPARI**

Bertako informazioari, bertako produktuak



**hitza** info

Harremanetarako:  
902-82 02 01  
[harpidetza@hitza.info](mailto:harpidetza@hitza.info)

# Hasieratik lurperatzearen aurka dagoela esan du ezker abertzaleak

Udal gobernua animatu du proiektuen arteko alderatzea zein erreferenduma «azken muturrera eramatera»

**Imanol Garcia** Tolosa

Tolosako ezker abertzaleak Larremendi auzoko lurperatzearen aurka hasieratik dagoela esan du. Agerraldia egin zuten mahai politikoko kideek, eta «azkenaldian lurperatzeari buruz azaldu diren informazioen harira, lehendik ere emana dugun iritzia berrestea» izan zen beraien asmoa, bozeramaile lanetan aritu zen Antxon Izagirrek esan zuenez.

Ido horretatik, «goitik behera gezurtatu» zuten lurperatzearen alde dauden auzotarrek esandakoa, hau da, ezker abertzaleak orain arte ez duela lurperatzearen aurkako jarrierarik izan, eta orain udal gestioan ari denean, jarriera aldaketa egin duela. «Hasieratik mantendu dugu lurperatzearen aurkako jarrera, eta egindako helegiteetan hala jasotzen da. Guk uste dugu irtenbide hori desegokia dela auzoarentzat, urbanizazioarentzat eta Tolosako herriarentzat».

Ezker abertzaleak «garbi» utzi nahi izan zuen kontrako jarrera mantentzeko «irizpide teknikoak bakarrik» erabiltzen dituztela. Hala, Aitor Iztuetak zenbait txosten teknikoren berri eman zuen, proiektuaren espedientean azal-



Tolosako ezker abertzalearen mahai politikokoak egin zuten agerraldia. HITZA

tzen zirenak: Tolosako Plan Orokorra idazten ari zen talde teknikoak 2006ko urtarrilean egindakoa; udaleko arkitektoak 2006ko otsailean egindakoa; Gipuzkoako Foru Aldundiko arkitektoak 2006ko abuztuan egindakoa; eta udaltzaingoa 2006ko otsailean idatzitakoa. Guztiek lurperatzearen aurkakoak direla nabarmendu zuten.

Txosten horien berri izan ondoren, beste tekniko batzuei ere kontsulta egin zitzaizela azaldu zuten Iztuetak: «Galdetutako guztiek erantzun berdina eman dute: irtenbide txarra dela lurperatzea». Txosten horiek kontuan hartuta, beraien eskakizunaren puntu batean lurperatzearen aurka azaldu zirela berretsi zuten: «Inpugnazioan hamar arrazoi jaritzen genituen, baina lehenengo puntuarekin auzitegiak arrazoi

eman zigun eta ez zen hasi gainera aztertzen».

Izagirrek gaineratu zuenez, «lurperatzea ez egitearen alternatiba hobea bada, are hobea da, obra hori ez egiteagatik hori inbertitu beharko litzatekeen kopurua, 2,5 milioi euro, auzoarentzat ekipamenduak hobetzen erabili litzatekeela jakitea».

## Auzi bideak kentzeko asmoa

Ezker abertzaleak, bestalde, udal gobernua animatu zuen «bi proiektuen arteko alderatzea egiten» jarrai dezan. «Informazioa bideratzea ezinbestekoa da, auzotarrek garbi izan behar dituzte bi proiektuen onurak eta kalteak». Herritarrek ere animatu zituzten prozesu horretan parte hartzea. «Iruditzen zaigu modu sosegatuan, modu lasaian egin behar dela, tentsionamendutik ihes egi-

naz, lehenago eta oraingo auzotarraren arteko enfrontamendurik sortu gabe. Auzo elkarte bakar batek jokatu lukeen moduan eztabaidatuz», gaineratu zuten.

Horrez gain, udal gobernua animatu zuen ere «azken erabakia demokrazia zuzenaren esku utzi dezan, eta muturreraino eramanean dezan erreferenduma egiteko asmoa».

Beste alderdi politikoei eta herritar eragileei «eztabaida demokratiko horretan parte aktiboa izan daitezen» dei egin zieten. Ezker abertzaleak ere konpromisoa hartu zuen horretan lan egingo duela, «benetan demokrazia zuzenaren bidez auzotarrek erabakia hartzeko konpromisoa hartzen duten eta errespetatzen zaien neurrian».

## 16 urte eta 8 hilabeteko zigorra, bere aitaordea hil zuten gazteari

Maltzurkeriaz egindako hilketagatik 16 urteko zigorra jarri dio epaileak, eta beste 8 hilabetekoa lapurrettagatik

**Erredakzioa** Berrobi

Epaileak jakinarazi du bere aitaordea Berrobiko etxola batean hil zuten gazteari jarritako zigorra: 16 urte eta zortzi hilabete. Azaroaren 14ean zinpeko epaitegiak hilketak eta lapurreta delituak egin zituela ebazti zuten eta atzo jaso zuten epailearen ebazpena. Hilketak maltzurkeriaz egiteagatik jaso du 16 urteko zigorra eta lapurrettagatik 8 hilabetekoa. 2009an hil zuten gazteak bere aitaordea mailu handi batekin burua joz. Zigorruak epailetan esan zuenaren arabera, bere defentsan eman zion kolpea.

Hildakoaren bi semeetako baikoitzari 17.472 euro eman beharko dizkie, egindako mina konpontzearen. Hain justu, bi horiek zigortuaren anaiak dira, ama bera baitute.

Hilketaren gauean gertatutakoa azaltzen da epaian. Besteak beste, eraso gertatu zenean, biktima makurtuta zegoela zehazten du, eta kolpeak ezustean hartu zuela, eta beraz, «ezin izan zen bestu». Epaileak gaineratzen duenez, biktima lurtean zegoenean, zigortuak 700 euro kendu zituzten eta bere autoa eraman zuten.

# Espezialitateak Asuncionera bideratzen ari direla dio TOPAK

Espezialitateek suposatzen duten lana hartzeko gai ote den zalantzan jartzen du plataformak

**I. Garcia**

Tolosaldea Osasun publikoaren Alde (TOPA) plataformak azaldu duenez, «Osakidetza, espezialitateen anbulatorioaren desegitearekin jarraituz, azkenaldian oftalmologiako espezialitateak Asuncion klinikara pasa du eta urtarriak letik aurrera kardiologia, otorinolaringologia eta traumatologia espezialitateak klinikara eramango ditu».

2011ean, espezialitate hauei dagokienez 19.000 kontsultatik gora artatu ditu anbulatorioak, TO-

PAk emandako datuen arabera. «Datorren urtetik aurrera, klinikak, hemeretzi mila kontsulta horiek, klinikak lehendik artatzen zituenak, gehi erreferentzi ospitalekat Donostia Ospitalea zuten Tolosaldeko kontsultak artatu beharko dituela esaten dute», adierazi du plataformak.

TOPAk duda egiten du klinika «gai izango ote den kontsulta guzti hauek hartzeko». Asuncion klinikak obrak egiteko asmoa du eta lan horiek hiru urtez luzatuko direla aurreikusten da, platafor-

mak dioenez. «Kontuan izanik obra guztiak eragiten dituzten eragozpenak», TOPAk zalantzan jartzen du «Tolosaldeko herritarrek beste eskualde ospitale publiko batekin konparatu daitezkeen kalitateko zerbitzua jasoko dugunik toki fisiko egokia, hornidura tekniko eta giza baliabide nahikoak ez baditu».

## «Anbulatorioa ez desegin»

TOPA koordinakundeak Osakidetzaari «anbulatorioa desegiten ez jarraitzeko» eskatzen dio eta

klinikara eramandako espezialitateak «berriz jar ditzala, gutxienez obrak bukatu bitartean eta kalitateko zerbitzu bat bermatu ahal izan arte».

Koordinakundeak aurrerago agerraldia egiteko asmoa azaldu

du, «Tolosaldeko herritarrei espezialitateen lekualdatzeak suposatuko dizkien aldaketak jakinarazteko eta kalitateko osasun zerbitzu publiko baten eskubidea defendatzeko ematen ari garen pausoen berri emateko».

**TOLOSako LASKORAIN IKASTOLAK**  
LANGILE HAU BEHAR DU AMATASUN BAJA BAT BETETZEKO  
Majisteritza diplomaduna Haur Hezkuntzan.  
Derrigorrezkoa: EGA titulua  
Curriculumak e-mailez bidali behar dira  
**tolosa@ikastola.net** helbidera.  
Jasoko diren azken eguna, abenduaren 29a

  
**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Ikazkinak eta Mari Domingik beren arrastoa utzi dute

Eskualdeko herri guztietatik pasa da bikotea; Gabon kantak ere entzun dira txoko guztietan

## Eneritz Maiz

Larunbatean izan zen Eguberri bezpera; Euskal Herriko ohitura zaharrak bizirik jarraitzen du gurean. Herri guztietan, hainbat taldetan banatuta, kantuan atera ziren. Baserriz baserri eta etxez etxe, Gabon kantei errepasoa egin diete. Txikienetatik hasi eta helduak bitarte, guztiek berotu behar izan zituzten eztarriak.

Eztarriak ez ezik, oinak eta eskuak berotu zituzten. Eguna euripean hasi bazuten ere, eguzkia lagun izan zuten eguerdirako. Talde bakoitzak dirua biltzen du eskean, eta hainbat arlotara bidertzen du dirua.

Txikienek hainbeste desio duten Olentzero ikazkina, Mari Domingi aldamenean duela iritsi zen. Herri bakoitzean geldialdia egiteko tartea atera zuten, eta ez dute hutsik egin. Eskualdeko herri guztietan izan dira opariak, gozokiak eta zoriona partitzen. Ikazkinak, aurtien ere, fin-fin bete du bere lana. Gau magikoa, ordea, pasa da. Eta Olentzerok datorren urtean, berriz, bisita egingo badu, baldintza bakararra dago.

● tolosaldean@hitza.info



Ikaztegietan eta Amasa-Villabonan, urteroko ohiturari jarraituz euskal preso eta iheslarien aldeko aldarrikapenak eginez, kantuan ibili ziren. HITZA



Zizurkilen euskal presoaren eskubideen alde aritu ziren kantuan. HITZA



Tolosako Plaza Zaharra txiki geratu zen. I. GARCIA



Olentzero iritsi zen Belauntzako haurrengana. HITZA



Leaburu-Txaraman, euskal presoak gogoan izan zituzten. HITZA



Alegian, urtero bezala, Lukasek jarri du Olentzeroa plazan. Kantuan ibili ziren Ibarrik Misio Taldekoak. HITZA



## PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

euskarazko **web guneak** dirulegutzak

**BALDINTZAK**

Publiko zabalari zuzendua behar du web guneak - Zergak Tolosa pagatu - Estekak oso-zerik ezak diren lekuetan

2012ko martxoaren 13a

TOLOSAKO UDALA

943 65 74 52 helburua  
tolosa@tolosaudala.net

## Tolosa



## PRESO ETA IHESLARIEN ONDOAN

Urtero bezala, abenduaren 24an jende ugari elkartu zen Tolosan manifestazioan, euskal preso eta iheslarien alde. Trianguloatik abiatu ziren ehunka lagun, mobilizazioa bertan amaitzeko.

Ekitaldian, besteak beste, Pirritx eta bere lagun pailazoak egon ziren. Hauek, herritar guztiak gonbidatu zituzten urtarrilaren 7an Bilbon egingo den manifestaziora. A. IMAZ



Olentzero iritsi zen Belauntzako haurrengana. Haurrak eta helduak atera ziren abesten, Bidegoianen. HITZA

## ↓ Gabonetako egitaraua

## ALEGIA

■ **Hilak 27 eta 28.** Gabonetako pilota topaketako saiklaren partidak izango dira 16:00etatik aurrera herriko frontoian.

## ANOETA

■ **Hilak 27.** Irteera egingo dute Txuri Urdin Izotz parkera. 10:30ean aterako da autobusa farmazia aurretik.

## IBARRA

■ **Hilak 27.** *Huntz korapiloa* emanaldia 11:00etan Kultur Etxean izango da 3-9 urte bitarteko haurrentzat.  
■ **Hilak 28.** *Miru aintzirako sorgina* emanaldia Sointek taldearen eskutik. 11:00etan 2-7 urte bitarteko haurrentzat.

## IRURA

■ **Hilak 27.** 15:00etan Gaztelekuko gazteak Txuri Urdin izotz jauregira irteera egingo dute. 17:30ean, Xake partidak izango dira plazan.  
■ **Hilak 28.** 17:00etatik 19:00etara Inuzente eguna ospatuko dute, eta Olentzerok

ekarritako opariak irekiko dituzte Gaztelekuan. 17:30ean, haurrentzat filmea eskainiko dute, kulturunean.

## LEITZA

■ **Hilak 27.** Saskigintza Tailerra izanen da 16:00etatik 20:00etara, Gaztetxean.  
■ **Hilak 28.** *Comprar, tirar, comprar* dokumentala eskainiko dute Gaztetxean 19:00etan.

## TOLOSA

■ **Hilak 27.** 12:00etan, *Xurdinen lagunak* ikuskizuna izango da,

Zerkausian. 11:00etatik 13:30etara eta 16:30etatik 20:00etara, berriz, haur parkea egongo da. *Elurrezko pampina* ikuskizuna izango da 18:30ean, Topic zentroan.

■ **Hilak 28.** 12:00etan *Tatxin eta Tatxan* ikuskizuna emango dute, Zerkausian. Egutero bezala, 11:00etatik 13:30etara eta 16:30etatik 20:00etara, haur parkea egongo da zabalik Zerkausian bertan. *Poxpolo eta konpainia* emanaldia izango da, Leidorren. Lehen saioa, 16:30ean eta bigarrena, 19:00etan. 2-12 urte arteko haurrentzat.



Hernandorenaren familia eta udal ordezkaria, sarituekin batera. A. IMAZ

## Iraolak irabazi du X. Hernandorena ipuin lehiaketa

Eneritz Irola anoetarrak irabazi du 18 urtetik gorakoen saria; beste bederatzi sari ere banatu zituzten

## ↓ Sarituak

- **A maila.** Olaia Elgerrestaren *Zebra Gaixoa* eta Beñat Ricaren *Bale Potoloa*.
- **B maila.** Enara Oyartzabal *Eguzki lorearen sentipenak* eta Jose Ramon Berrondoren *Itsa-soa zergatik da gazia?*
- **C maila.** Kimetz Urkolaren *Nire bizitzako penaltia*, eta Jasone Urkolaren, *Ispilu magikoa*.
- **D maila.** Ariane Obinetaren *Ihntzaren alaba* eta Leire Muñagorriren *Amets bat egia bihurtzearen desioa*.
- **E maila.** Eneritz Iraolaren, *Gezoziondoa loretan*. (Bigarren saria hutsik utzi dute).
- **Aipamen berezia.** Oihane Moreiraren *Uda aitona-amonekin*.

## E. Maiz Zizurkil

Banatu dituzte X. Teodoro Hernandorena ipuin lehiaketako sariak. Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean izan zen sari banaketa, eta nagusien mailan Eneritz Iraola izan da garailea. Bost mailatan, adinaren arabera, banatu dituzte sariak. Maila bakoitzeko bi sari banatu dituzte, baina helduen mailan bigarren saria hutsik geratu da. Guztira, 371 ipuin izan dira ipuin lehiaketan parte hartu dutenak.



**ARALAR KIBOLAK**  
LASKORAIN KALEA  
7-9-10-14  
TEL.: 943 654916  
FAXA.: 943 651727  
20400 TOLOSA

**Tartak!**  
Diseinu originalak jazkietan haur eta helduentzat. Eskeintza bereziak. Kopuru mugatuak.

Abenduaren 1etik, urtarrilaren 14 arte irekita.

Asteleheneetik -Larunbatara  
9:30/13:00 16:30/20:00

Diseinua & Serigrafia  
Plaza zaharra 10  
Tolosa  
(Udal etxeko plaza)

**Kirolak**↓ **Kirol emaitzak****PILOTA****ERREMONTEA****Banakako Gabonetako****Txapelketa****final-laurdena****Zeberio II-Urriza** 9-30**ESKU PILOTA****Binakako Txapelketa****Ligaxka****Irujo-Barriola** 22**Xala-Laskurain** 17**Berasaluzte VIII-Albisu** 22**Bengoetxea VI-Apraz** 16**PALA****Emakumea Pilotari****Txapelketa****Etxegia-Mendizabal** 30**Arozena-Redondo** 17**WTA zerrendan 170. postuan sailkatu da Lara Arruabarrena tenis jokalaria**

Urtarrilean ekingo dio denboraldiari, Australian; lehen 100 postuetan sailkatzea du helburu

**Erredakzioa** Tolosa

Lara Arruabarrena bukatu berri du tenis denboraldia, eta WTA zerrendan 170. postuan sailkatzea lortu du. Tolosa tenis jokalaria 100 onenen artean sailkatzea jarri dio helburu bere buruari, datorren urteari begira.

Hain zuzen ere, urtarilaren 4an hartuko du Melbournarako hegazkina, 13an denboraldiari ekiteko. Australian izan eta gero, Latinoamerikan jarraituko du bidea. Calin, Bogotan, Monterreyn eta Acapulcon lehiatuko da. 19 urteko gazteak dioenez, «ahalik eta WTA txapelketa gehien jokatzeko xedea, puntuak batzeko».

**Bosgarren aldiz jantzi du Emakumea Pilotariko txapela Mendizabalek**

30-17 irabazi zuten anoetarrak eta Etxegia bere bikoteak, Arozena lizartzarrari eta Redondori

**Rebeka Calvo**

Anoetako Maider Mendizabal pilotariak jantzi du bosgarren aldiz Emakumea Pilotari Torneoko txapela. Seigarren urtez jokatu dute txapelketa, eta anoetarrak parte hartu duen bost alditan lortu du garaipena. Hain zuzen, 2008-2009 denboraldikoan ez zuen jokatu, munduko txapelketan ari zelako.

Finala Hernanin izan zen; anoetarrak Goizuetako Mirari Etxegia zuen bikote, eta aurkari bezala Lizartzako Nagore Arozena eta Orioko Maite Redondo izan zituen. Partidak 52 minutu iraun

zuen, eta hasieran nahiko berdinduta egon ziren, 8ko berdinketa arte. Azkenean Mendizabalek eta Etxegiak 30-17 irabaztea lortu zuten. Mendizabalen ustez, hala ere, ez zen oso partida ona izan: «Partida hasiera ez zitzaidan batere gustatu; erritmo gabe hasi ginen, huts egite asko egiten... Nagore (Arozena) ere eustekoa da gehiago, eta ez ginen batere ondo hasi. Gerora bai, kontzentratu, eta hasi nintzen tantoak egiten».

**Lehia espero zen**

Ikuslegoak partida gogorra espero zuen, izan ere parekotasuna eta lehia estua aurreikusitaz Mendizabal eta Arozenari esker. Biak ala biak Trinketeko Munduko txapeldunak eta Munduko Kopako irabazleak izandakoak dira, eta gogoratu behar da, era berean, ligaxkan, Urretxuko partidari, hain justu, bi bikoteen arteko lehia ikusi ahal izan zela,

eta lizartzarrak eta oriotarrak 30-24 irabazi zutela. Mendizabalen bikotea, Mirari Etxegia, gainera, ez zen oso fin ibili ligaxkan, baina finaleko partidari ondo aritu zela dio Mendizabalek.

Mendizabalek esandakoaren arabera, hala ere, Arozenak ezin izan zion eutsi. «Ezin izan zuen. Pilota berdinarik izan ditugu txapelketa osoan zehar, baina Hernaniko frontoia bai izan zela desberdina; tanto batean hiruzpalau errebotere ateratzen dira. Nik ez dut inoiz hori lortzen; Anoetako frontoian, bai, txikia baita. Nagore (Arozena), hala ere, ondo ibili zen hauek bueltatzen, baina ez zen nahikoa izan», gogoratu du Mendizabalek.



Maidar Mendizabal artxiboko irudi batean. HITZA

**Irudia** | Ikaztegieta**LASTERKARI ONENARI SARIA**

El pedal de Frodo txirindularitzari buruzko atariak 2011 urtean nabarmendu diren txirindulariak saritu zituen iragan ostegunean egoniko ekitaldian. Irakurleek hala bozkatuta, Leire Olaberriak lasterkari onenaren saria jaso zuen. Ikaztegietak lesiotik errekupe ratu dela erakutsi du, Calin hilabete hasieran jokaturiko Munduko Kopan emaitza onak lortu baitzituen. HITZA

**Zeberio II.a Banakako Erremonte Txapelketatik kanpo geratu da**

Urrizaren aurkako final-laurdeneko partida 9-30eko emaitzarekin galdu zuen elduaindarrak

**I. Terradillos** Elduain

Binakako Txapelketa irabazi berrikan, Gabonetako Banakako Erremonte Txapelketatik at geratu da Patxi Zeberio. Elduaindarrak Jabier Urrizaren aurka jokatu zuen iragan larunbatean txapelketako lehen partida, final-laurdenekoa, eta iruñearra

nagusitu zen 9-30eko emaitzarekin.

36 minutu iraun zuen partidari Urriza jaun eta jabe izan zen. Zeberio hasi zen 5-3 irabazten, baina seina berdindu zutenetik Urrizak aurrea hartu zion. Hain zuzen ere, 18 tanto egin zituen jarraian iruñearrak, markagailua 6-24 utziz. Horietatik, 13 sakez egin zituen. Urrizak ederki asmatu zuen pilota gurutzatuz, eta Zeberio erantzun ezinik geratu zen. Azkenean, inork gutxi espero zuen emaitzarekin amaitu zen norgehiagoka. Agian, pasa den astean jokaturiko finaletik errekupe ratu gabe zegoen elduaindarra.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

# Nesken parte hartze handia, Shanti Txapelketan

Atzo hasi zen Eguberrietako urteroko ekimena; 61 talde ariko dira guztira, 600 neska-mutil baino gehiago

**Iñigo Terradillos** Tolosa

Eguberrietan hutsik egin ezin duen hitzordu horietako bat da Shanti Txapelketa. Ekimen honi esker, futbolaren bueltan neska-mutil gazte ugari bildu ohi dira, eta horrela izango da aurtengoan ere, guztira, 61 talde eman baitute izena. Atzo jokatu zituzten lehen partidak, eta urtarrilaren

8an izango dira finalak ikusgai Usabal kiroldegian.

Pasa den urteko txapelketan baino talde bat gehiago ariko da baloiarekin lehia, 600 gaztetxo baino gehiago benjaminetatik alebinetara bitarteko mailetan. Baina, nesken taldeen igoera da antolatzaileek bereziki nabarmendu nahi izan dutena; «ez dakigu futbola boladan dagoelako edo den, baina kontua da urtetik urtera geroz eta nesken talde gehiago ditugula».

Pasa den urtean Xabi Alonso-futbolari tolosarra omendu zuten. Aurten ez da omenaldirik izango, baina datorren urterako izango dela espero dute.



Atzo Usabalen jokaturiko partida bateko une bat. I. TERRADILLOS

## Antxon Bandresen omenezko erlojupekoa egingo dute Aretten

«Mendiko eskia bultzatzen egindako lanarengatik» antolatuko dute proba, Aretten, urtarrilaren 8an

**Erredakzioa** Tolosa

Euskal Mendizale Federazioak antolatzen duen mendiko eskiko denboraldiari laster ekingo diote. Lehendabizikoa proba urtarrilaren 8an izango da, Aretteko eski

estazioan, eta berrikuntzekin dator. Izan ere, erlojupekoa izango da, eta I. Antxon Bandres Memoriala izena jarri diote, «mendiko eskia bultzatzen egindako lan handiagatik».

Gizonetako eta emakumezkoek, kadete, junior eta nagusien mailan lehiatuko dira, eta promesen eta beteteraen azpikategoriak ere izango dira.

Irailaren 27an hil zen Antxon Bandres, eta besteak beste, Mendi Federazioaren presidente izan zen.

## Binakako Txapelketako bigarren puntua eskuratu du Barriolak

**Erredakzioa**

Abel Barriola leitzarrak eta bere bikoteak, Martínez Irujok, Binakako Pilota Txapelketako bigarren puntua eskuratu zuten Xala eta Laskurainen kontrako partidari. Nafarroako bikoteak 17-22 irabazi zuen Tolosako Beotibarraren izandako norgehiagoka. Partidako jokalaririk onena, hala ere, Irujo izan zen; 2 sake lortu zituen, eta 13 tanto bukatu zituen.

## Bikain aritu dira Danena taldeko pultsulariak

Sofyam Rochdik gazteak lehen postua eskuratu du Euskadiko Ligan, kadeteen mailan

**Erredakzioa**

Villabonako Danena-Olaederra taldeko pultsulariak garaipenak pilotzen jarraitzen dute. Batetik, Euskadiko Ligan kadeteetan Sofyam Rochdik garaipena lortu zuen, eta Issam Eloikilik bosgarren egin zuen, eta etorkizuneko

pultsularien mailan, Asier Gallego izan zen lehenengoa, eta Joseba Arrate bigarren.

Bestetik, Pedro Mari Otaño ikastetxean jokatutako Eguberrietako Trofeoan teknikan Jokin Aranburu eta Goretti Amonarriz izan ziren onenak. Era berean, 15 eta 17 urte azpikoetan Joseba Arrate izan zen lehena, Asier Gallego bigarren, eta Asier Zubeldia hirugarren. Absolutuetan Igor Sasiain izan zen lehena, Ekaitz Kortajarena bigarren, Jon Sasiain hirugarren eta, Jon Ander Iriarte laugarren. Sasiainek Euskadiko junior eta Gipuzkoako absolutuko errekorrak berdindu ditu.



## harpidedun izateak badu saria

### zozketa

#### 1 Mahala sorta

Bi sorta

Mahala Berri baserria  
Leaburu  
Tel.: 943-67 07 24



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

#### 2 Gorrotxategi sorta

Hiru turroiko bost sorta

Plaza Zaharra, 7 • Tolosa  
Tel.: 943-67 07 27 / 943-65 12 26  
www.gorrotxategi.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

#### 3 Tolosako babarrunak

Hamar babarrun poltsa Eusko labelarekin

San Esteban, 29 • Tolosa  
Tel.: 943-65 02 53



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

#### 4 Laskorain Ikastolako Abesbatzaren CD-DVDA

Hamar ale

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54



#### 5 Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean

Bi liburu

HITZako bulegoa  
Araba etorbidea, 5 behea  
Tel.: 943 65 56 95



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 55

#### 6 Lagu Aro GBC

Sarrera pareta

Urtarrilak 4. Asteazkena  
20:00etan  
Donostiako Iunben



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 56

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan, Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedunen  
**TXOKOA hitza**



16°  
8°

GOIZA	OSKARBI
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	14°
HOTZENA	9°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,  
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**DEIALDIAK**

- **Tolosa.** Esna-bidean erakusketaren barruan gaur, *continuum* kontzeptuari buruzko hitzaldi-tailerra izango da 18:00etan Aranburun. Meitai Maitiek eskainiko du saioa.
- **Villabona.** Hipo eta Tomax pailazoek *Dinbi-danba* eskainiko dute gaur, 16:30ean Gurean. Sarrerak 4,5 euro balio du.
- **Txarama.** Gaur 16:30ean bingoa, kultur etxen.
- **Autobusak.** Urtarrilaren 7an Bilbon, euskal presoek eskubideen alde egingo duten manifestaziora joateko autobusak antolatuta dituzte. Berastegin, Berrobiko eta Elduaingo herriekin batera antolatuta dute, eta izena emateko epea hilaren 30an amaituko da. Urepele elkartean, udaletxean eta udal taldekoei esanda eman daiteke izena. Tolosan eta Ibarren ohiko lekuetan eman behar da izena. Eta Leaburu eta Gaztelutik aterako den autobusean izena emateko, Leaburukoek 616 84 9722 telefono zenbakira deitu behar dute, eta Gaztelun, ohiko lekura jo behar da.

**KIROLAK**

- **Alegia.** Gaur 15:30ean Gabonetako Pilota Topaketako argazkia aterako dute. Partidak 16:00etan izango dira eta Alegian, Armezketeta, Altzo eta Ikaztegietan izango dira partidak.

**ERAKUSKETAK**

- **Tolosa.** *Esna-bidean* eta *Baserritik Zerkausira* erakusketak ikusi daitezke Aranburu jaurgian. Lehena urtarrilaren 4a bitarte ikusi daitezke, eta bigarrena, aldiz, urtarrilaren 21a arte egongo da zabalik.

**Irudia Tolosa**



**EGUNERO EZ DIRELAKO 100 URTE BETETZEN**

Juana Iñurrita Otaegik 100 urte bete zituen pasa den ostiralean. Iñurrita Iruran jaio zen, baina 14 urte daramatza Tolosan bizitzen. Nahiz eta gaur egun bizi itxaropena geroz eta handiagoa den, orain-

dik ere ez da ohikoena 100 urte betetzea, eta beraz, Lore Agirre Tolosako alkateordea eta Edurne Mendia zinegotzia zorionak ematera gerturatu ziren, tolosar guztien izenean. I. GARCIA

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 5118.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

**Agurrak**



**Zorionak!**

**Olaia Zubeldia Azkolain (Ibarra).**  
Gaur 7 urte! Muxu handi bat birramona Tereren partetik.

**AGURRAK**

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

●●●● **agurrak**

**Tolosa, gertuko  
&  
merkataritza**

**Tolosa&Co**

**INKERNU**  
jantzigintza

- Diseinuak
- Eraldaketak
- Konponketak
- Artzain-andre jantziak
- Inauterietako mozorroak

Gernikako Arbola 1 behea • **TOLOSA** • 943 24 43 64 • [elvinkernu@gmail.com](mailto:elvinkernu@gmail.com)